



ALDERDI OROKORRAK

193 ereduak atal hauek dauzka: laburpen orri bat eta hartzaileen xehetasunak azaltzeko barruko orriak. Laburpen orria nahitaez bete eta aurkeztu behar da, barruko orriak nolakoak diren eta nola aurkezten diren, papelean (inprimakia) edo ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian), kontuan izan gabe.

193 ereduak aurkeztu behar dutenak.

193 ereduak aurkeztu beharra daukate legeko arauetan ezarritakoarekin bat etorritz Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) ziozko atxikipean edo konturako sarrerak aplikatu behar dituzten pertsona fisikoek, juridikoek eta erakunde guztiek, administrazio publikoek barne, baldin eta ondoren zehaztuko diren errentetako batzuk (atxikipean edo konturako sarrera aplikatu behar zaienak) ordaintzen badituzte. Gainera, Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duten erakundeek ere aurkeztu behar dute 193 ereduak, baldin eta besteren kontura ordaintzen badituzte atxikipean aplikatu beharreko errentak (ondoren zehaztuko direnak) edo atxikipean edo konturako sarrera aplikatu beharra sortzen duten baloreen gordailuzainak badira edo haien errenten kobrantza kudeatzen badute.

193 ereduak jaso beharreko errentak (*).

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergadun diren hartzaileei dagozkien kapital higikorren etekinak, salbuetsiak barne; hala ere, ondoko hauek ez dira jaso behar:
 - Mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioen ondorioz lortutakoak, zeinahi ere den horren izendapena edo izaera, finantza aktiboaren gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne (196 ereduak aitortu behar dira).
 - Finantza aktiboak eskualdatu, itzuli edo amortizatuta lortzen direnak (194 ereduak aitortu behar dira).
 - Kapitalizazio eragiketen eta bizi zein elbarritasun aseguruaren kontratuen ondorioz lortzen direnak (188 ereduak aitortu behar dira).
- Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboaren errentak eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek establezimendu iraunkorretan lortzen dituztenak, ondoko hauek izan ezik:
 - Mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioen ondorioz lortutakoak, zeinahi ere den horren izendapena edo izaera, finantza aktiboaren gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne (196 ereduak aitortu behar dira).
 - Finantza aktiboak eskualdatu, itzuli edo amortizatuta lortzen direnak (194 ereduak aitortu behar dira).
 - Kapitalizazio eragiketen eta bizi zein elbarritasun aseguruaren kontratuen ondorioz lortzen direnak (188 ereduak aitortu behar dira).
 - Hiri higiezinak errentan edo azpierrean emanda lortzen direnak (180 ereduak aitortu behar dira).
 - Inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzearen edo ordaintzearen ondorioz lortutakoak (187 ereduak aitortu behar dira).

193 ereduak jaso behar diren hartzaileak.

Jaso behar diren hartzaileak dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, kapital higikorren etekinak egotzi behar zaizkienak, zerga hura arautzen duen 3/2007 Foru Arauaren 12.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak (establezimendu iraunkorrak), baldin eta eredu honen xede diren errentak jaso badituzte, bi zergak arautzen dituen araudian xedatutakoa betetz.

Garrantzitsua: Inolaz ere ez dira agertu behar 193 ereduak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo ez izaki egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona eta erakundearen etekinak eta errentak, ez eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutakoak ere. Hala ere, etekin eta errenta horiei buruzko datuak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ziozko urteko atxikipean edo konturako sarreraren laburpenean ager daitezke (laburpen hau atxikitzaileen eta konturako sarrerak egin behar dituztenen betebeharrei buruzko arautegian ezarri da).

A LABURPEN ORRIA

1 IDENTIFIKAZIOA

Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzak ematen duen identifikazio etiketa berariaz ezarritako tokian itsatsi behar da.

2 EKITALDIA ETA AURKEZPEN MOTA

Ekitaldia. Aitorpenari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

Aurkezteko modua. Markatu "X" batekin aitorpena aurkezteko moduari dago(z)kion laukia(k).

- Inprimakia.
- Banakako euskarria.
- Taldeko euskarria.

Taldeko euskarria aurkeztuz gero, laburpen orriko datuak aurkezlearen edo aitortzailearenak diren zehaztu behar da lauki egokia markatuta.

Erme: BAKARRIK aurkeztu ahal izango dute 193 ereduak inprimakian pertsona fisikoek, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek eta jabeen erkidegoek, betiere ez badute aurkeztu aurreko ekitaldian 15 erregistro baino gehiagoko urteko laburpenik edo aitorpen informatiborik, edo aurreko ez badute aurkezten 15 erregistro baino gehiagoko urteko laburpenik edo aitorpen informatiborik.

3 AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA

Zenbaki sekuentziala izan behar da, eta lehenengo hiru digituak 193 kodearekin bat etorriko dira. Adibidez: 193 sekuentzia zenbakia.

4 HARREMANETARAKO PERTSONA

Harremanetarako pertsonaren datuak jarri behar dira.

5 AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA

Aitorpen osagarria. Aitorpenaren helburua aurretik aurkeztu zen ekitaldi bereko beste aitorpen batean azaldu behar baina aipatu ere ez ziren hartukizunak sartzeko bada, X bat jarri behar da lauki honetan. Honelako aitorpenetan aurretik aitortu gabe utzitako hartukizunak baino ez dira sartu behar.

Ordezko aitorpena. X bat jarri behar da lauki honetan aitorpena aurkeztearen helburua hau baldin bada: datu okerrak agertu zituen aurreko aitorpen bat erabat baliogabetzea eta ordezteak.

Aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia. "Aitorpen osagarria" edo "Ordezko aitorpena" laukietan X bat jarri bada, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.

6 AITORPEN LABURPENA

Atal honetako laukietan, barruko orrietan (edo euskarrian) jarritako datuen laburpena eman behar da, ondoren azalduko den moduan:

- laukia **Hartzaileak, guztira.** Jar ezazu aitorpen honen barneko orri guztietan (edo euskarrian) jasotako hartzaileen (erregistroen) kopuru osoa. Hartzaile bat hainbat erregistrotan agertzen bada, agertzen den beste aldiz konputatu behar da.
- laukia **Atxikipean eta konturako sarreraren oinarria.** Barruko orrietako (edo euskarriko) hartzaileen erregistroetako "Atxikipean eta konturako sarreraren oinarria" laukian jarritako kopuruaren guztirako batura adierazi behar da.
- laukia **Atxikipean eta konturako sarrerak.** Barruko orrietako (edo euskarriko) hartzaileen erregistroetako "Atxikipean eta konturako sarrerak" laukian jarritako kopuruaren guztirako batura adierazi behar da.
- laukia **Laukia Sartutako atxikipean eta konturako sarrerak.** Barruko orri guztietako (edo euskarriko) hartzaileen erregistroetako "Atxikipean eta konturako sarrerak" laukiko kopuruetatik "Hartukizunaren gako" laukian C letra duten hartzaileei dagozkien eta A, B edo D letra dutela, "Ordainketa" laukian 1 edo 3 jarrita dutenei dagozkien batura jarri behar da.

7 TALDEKO AURKEZPENA (DATU GEHIGARRIAK)

Aitorpena taldekoa bada, aurkezleari dagokion laburpen orriari laburpen orri bat erantsi behar zaio euskarrian agertzen den pertsona edo erakunde aitortzaile bakoitzeko.

Aurkezlearen laburpen orrian adierazi beharreko datuak.

- laukia **Taldeko euskarrian ageri diren pertsona edo erakunde aitortzaileen guztirako kopurua.** Taldeko euskarrian aitorpena duten aitortzaileen kopurua adierazi behar da.

(09) laukia **Taldeko euskarriari ageri diren hartzaileen guztirako kopurua**. Taldeko euskarriari ageri diren hartzaileen (erregistroak) kopurua zehaztu behar da, pertsona edo erakunde aitortzaileak kontuan izan gabe. Kopuru hau taldeko euskarriko aitortzaileen laburpen orrietako 01 laukian agertzen diren hartzaileen guztirako kopuruen batura izan behar da.

Atxikitzaile bakoitzaren laburpen orrian adierazi beharreko datuak:

(10) laukia **Aurkezlearen IFZ**. Taldeko euskarriko aitortzaile guztien laburpen orrian jarri behar da.

8 DATA ETA SINADURA

Dagokion lekuan, data eta sinadura jarri behar dira, baita sinatzailearen izaera ere. Azken hau aitortzaile edo bere ordezkaria izango da.

9 ZIGILUA ETA SARRERA ERREGISTROA

Eremu hau Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zergadunetikiko Harremanetarako Zerbitzuak bete behar du.

B BARRUKO ORRIAK

HARTZAILEEN BARRUKO ORRIETAKO IDENTIFIKAZIO DATUAK

“Aitortzailearen IFZ” laukia: pertsona edo erakunde aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) jarri behar da.

“Ekitaldia” laukia: aitortenari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

“Orri zk.” laukia: barruko orri bakoitzaren hurrenkera zenbakia eta aitorteneko orrien guztirako kopurua zehaztu behar dira (Adibidez: aitortenak barruko 4 orri badauka, bakoitzean jarriko da: 1/4, 2/4, 3/4 eta 4/4).

HARTZAILEAREN DATUAK

“Hartzailearen IFZ” laukia: aitortzaile bakoitzaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da. Hartzailea errenta egoketaren araubidean dagoen erakundea bada (ondasun erkidegoa, sozietate zibila, jaso gabeko jaraunspena, etab.), beraren IFZ jarri behar da. Hartzailea IFZrik ez daukan 14 urtetik beherako adingabea bada, ez da bete behar lauki hau baizik eta “Ordezkiaren IFZ” laukia, jarraibide horietan ezarritakoari lotuta.

“Ordezkiaren IFZ” laukia: lauki hau hartzailea IFZrik ez daukan 14 urtetik beherako adingabea izanez gero soilik bete behar da: haren legezko ordezkiaren (aita, ama edo tutorea) IFZ jarri behar da.

“Abizenak eta izena, sozietatearen izena edo izendapena” laukia:

- Pertsona fisikoak bada, honela idatzi behar dira izen-abizenak: lehenengo abizena, gero bigarrena eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan. Hartzailea 14 urtetik beherako adingabea bada, beraren abizenak eta izena idatzi behar dira..
- Pertsona juridikoa edo errenta egoketaren araubideko erakundea bada, erakundearen sozietate izena edo izendapen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe.

Probintzia (kodea) laukia: Hartzailearen egoitza dagoen probintziari edo, hala denean, hiri autonomoari dagozkion zenbakizko bi digituak jarri behar dira; hona kode guztiak:

ARABA.....	01	GRANADA.....	18	PONTEVEDRA.....	36
ALBACETE.....	02	GUADALAJARA.....	19	ERRIOXA.....	26
ALACANT.....	03	GIPUZKOA.....	20	SALAMANCA.....	37
ALMERIA.....	04	HUELVA.....	21	S.C.TENERIFEKOA.....	38
AVILA.....	05	HUESCA.....	22	SEGOVIA.....	40
BADAJOZ.....	06	BALEAR HUARTEAK.....	07	SEVILLA.....	41
BARTZELONA.....	08	JAEN.....	23	SORIA.....	42
BURGOS.....	09	LEON.....	24	TARRAGONA.....	43
CACERES.....	10	LLEIDA.....	25	TERUEL.....	44
CADIZ.....	11	LUGO.....	27	TOLEDO.....	45
KANTABRIA.....	39	MADRIL.....	28	ASTURIAS.....	33
CASTELLO.....	12	MÁLAGA.....	29	VALENTZIA.....	46
CEUTA.....	51	MELILLA.....	52	VALLADOLID.....	47
CIUDAD REA.....	13	MURTZIA.....	30	BIZKAIA.....	48
KORDOBA.....	14	NAFARROA.....	31	ZAMORA.....	49
A CORUÑA.....	15	OURENSE.....	32	ZARAGOZA.....	50
CUENCA.....	16	PALENTZIA.....	34		
GIRONA.....	17	LAS PALMAS.....	35		

“Hart. gakoak (Hartukizunaren gakoak)” laukia: kapital higikorren etekinen edo atxikipena eta konturako sarrera aplikatu behar zaien errenten jatorriaren arabera gakoak jarri behar da. Kode alfabetikoak jarraibide hauen amaieran zerrendatu dira.

“Izaera” laukia: aurreko laukian ezarritako kode alfabetikoaren arabera zenbakia jarri behar da. Hauen zerrenda jarraibideen amaieran dago.

“Hart. mota (Hartukizun mota)” laukia: lauki honetan ondoko laukian zehaztu behar diren hartukizunak identifikatzen dituen zenbakia idatzi behar da:

- Dirutan egindako hartukizunak.
- Gauzatan egindako hartukizunak

“Hartukizunaren zenbatekoa/ mailegu-emailearen ordainsaria” laukia: hartukizuna dirutan jaso bada (“Hart. mota” laukia: 1), hartzaile bakoitzari eska dakioken edo ordaindutako kontraprestazio osoaren zenbatekoa zehaztu behar da.

Gauzatan jaso bada (“Hart. mota” laukia:

2), ordaintzaileak jasandako eskuraketa balioari edo kostuari 100eko 20 gehitzearen emaitzako kopurua jarri behar da.

Bestetik, “D” gakoak erabiltzen denean, kontuan hartu behar da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian finkatutakoa, hartukizunak “B” eta “D” gakoan artean banatzeko. Horrela, hartzaileak laga dituen kapital propioak erakunde mailegu hartzailearen funts propioetan duen partaidetza bider hiru eginda eratorritako emaitza baino zenbateko handiagokoak badira, hartukizuna aitortu behar da honako banaketa honen arabera:

- “B” gakoarekin aitortuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauaren 38. artikuluan jasotako kapital higikorreko etekinak, erakunde mailegu hartzailearen funts propioetan duen partaidetza bider hiru eginda eratorritako emaitza baino zenbateko txikiagoko lagatako kapitaletatik badatoz.

- “D” gakoarekin aitortuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauaren 38. artikuluan jasotako kapital higikorreko etekinak, erakundearen funts propioetan zergadunak duen partaidetza bider hiru eginda eratorritako emaitza baino zenbateko handiagoko lagatako kapitaletatik badatoz.

“PFEZ-AN sartzen ez den zenbatekoa (3/2007 FA, 42.3. art.)” laukia: hartzaileari ordaindutako hartukizunetako bati PFEZi buruzko 3/2007 FAKO 42.3. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal bazaio, jasotakoaren (“Hartukizunaren zenbatekoa” laukia) eta PFEZ-en aitortuaren egotzi beharreko zenbateko osoaren arteko diferentzia ezarri behar da lauki honetan, betiere hartzailea zerga horren zergaduna izanez gero.

Erne: errenten hartzailea Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna (establezimendu iraunkorra) bada, lauki honetan ez da jarri behar zenbatekorik.

“Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarria” laukia: “Hartukizunaren zenbatekoa” laukian jarritako kopuruari “PFEZ-en ordaintzetan itzuli behar ez den zenbatekoa (3/2007 FA, 42.3. art.)” laukian jarritakoa kenduta geratzen den kopurua adierazi behar da. Azken lauki honetan jarritako kopurua zero bada, edo hartzailea Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergaduna bada, “Hartukizunaren zenbatekoa” laukiko zenbatekoa “Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarria” laukikoa bera izan behar da. Hala ere, eredu honen barruan hiri higiezinaren azpierrementamenduei aplikatu beharreko atxikipenen kasuan (hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren Zergaren zergaduna), atxikipenaren oinarrian errentatzaileak jasotzen dituen kontzeptu guztiak sartu behar dira, Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan ezik. Kapital higikorren errenten edo etekinen kasuan, hartukizun gakoak C bada eta “Izaera” gakoak 01, 02, 03, 04 edo 06 bada eta, gainera, hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, atxikipenaren oinarria ordaindutako sarreraren guztirako kopurua izango da. Gainera, hartukizun gakoaren C letraren “Izaera” gakoaren 05 zenbakiak adierazten dituen biziarteko edo aldi baterako errenten kasuan, hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, atxikipenaren oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarrian integratu beharreko kopurua izango da (hau PFEZi buruzko Foru Arauaren arabera kalkulatu behar da).

“Atxikipen %” laukia: aplikatutako atxikipen edo konturako sarreraren ehunekoak adierazi behar da.

Ezkerraldean atxikipen edo konturako sarreraren ehunekoaren zenbaki osoa jarri behar da. Atxikipen edo konturako sarreraren ehunekoaren zenbaki osoa ez bada, eskuinaldean bi hamartar jarri behar dira; zenbaki osoa izanez gero, bi zero (00) jarri behar da.

“Atxikipenak eta konturako sarrerak” laukia: “Atxikipenak eta konturako sarreraren oinarria” laukian ezarritako zenbatekoari “Atxikipen %” laukian jarritako atxikipen eta konturako sarreraren ehunekoak aplikatzearen emaitzako kopurua jarri behar da. Aurrekoa gorabehera, urteko laburpena dagokion urtean aplikagarri izan baziren atxikipen eta konturako sarreraren hainbat ehuneko, aldiari-aldiari indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jasotzailearen atxikipen eta konturako sarreraren oinarriari dagokion atxikipen eta konturako sarreraren guztizko zenbatekoa jarri behar da eremu horretan.

“HART. GAKOAK” LAUKIAN JARRITAKO LETRAREN ARABERA BERARIAZ ADIERAZI BEHARREKO DATUAK

“Hart. gakoak” laukian A, B edo D letra duten hartzaileen (erregistroak) datu zehatzak.

Erne: jarraiko laukietako berariazko datuak, baita lauki horietan ere, ez dira inolaz ere bete behar hartzailearen erregistroko “Hart. gakoak” laukian C letra jarri bada.

“Kode gakoak” laukia: lauki honetan ondoko zerrendako zenbakietako bati jarri behar da “Jaulkitzailearen kodea” laukiaren edukia identifikatzeko:

- Jaulkitzailearen kodea IFZ bati dagokio.
- Jaulkitzailearen kodea ISIN bati dagokio.
- Jaulkitzailearen kodea ISIN esleituta ez duten atzerriko baloreei dagokie.

“Jaulkitzailearen kodea” laukia: “Kode gakoak” laukian 1 jarri bada, jaulkitzailearen IFZ jarri behar da. “Kode gakoak” laukian 2 jarri bada, ISIN kodea jarri behar da, esleituta badauka, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 28ko 2/2010 Zirkulararen (finantza izaerako balio eta beste tresna kodegarri eta kodetuzko prozedurari buruzkoa, irailaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) arabera konfiguraturata.

“Kode gakoak” laukian 3 idatzi bada, “ZXX” gakoak jarri behar da, “XX” balorea jaulki den herrialdearen kodea dela (indarreko herrialdeen kodetzaeren arabera). Titulua ISIN kodea jarri gabe daukaten nazioaz gaindiko erakunde batek jaulki badu (Munduko Bankuak...), “Z99” idatzi behar da.

“**Ordainketa**” laukia: Ondoko zerrendan ageri diren zenbakietako bat idatzi behar da aitorzaileak egin duen ordainketa hurrengo kontzeptu hauetako bategatik izan dela adierazteko:

1. Jaulkitzaile izanik.
2. Espainiar balioen bitartekari izanik.
3. Atzerritar balioen bitartekari izanik.

“**Kode mota**” laukia: ondoren azaltzen diren letretariko bat jarri behar da, “Balio kontuaren kodea” laukiaren edukiaren deskripzioa identifikatzeko:

- C: Balore Kontuaren Kodearen (CCV) bidezko identifikazioa.
- O: Bestelako identifikazioa.
- P: Balore mailegua.

“**Balore kontuaren kodea/ mailegu eragiketaren zenbakia**” laukia: finantza erakunde batek eredu honen gai diren kapital higikorren etekinak edo errentak sortzen dituzten baloreen kobrantzaren kudeaketa, administrazioa eta gordailutza bere gain dituenean adierazi behar da. Beraz, aitorzaileak ez bada kapital higikorren etekinak edo errentak sortzen dituzten baloreen kobrantzaren kudeaketa, administrazioa eta gordailutza bere gain dituen finantza erakundeak, lauki hau hutsik utzi behar da. Honela egituratuta dago:

- Erakundearen kodea: lau digitu.
- Sukurtsalaren kodea: lau digitu.
- Kontrol digituak: bi digitu.
- Kontu zenbakia: hamar digitu.

“**Ordaindu gabe**” laukia: lauki honetan X jarri behar da ekitaldian zehar hartu-kizunak sortu eta aitorzaileak titularrak kobratzera aurkeztu ez delako ordaindu ez baditu. Lauki honetan X jarri gero, hartzaile (erregistro) beraren gainerako eremuak honela bete behar dira:

- Hartzailearen Ifz: 999 999 999
- Ordezkararen Ifz: 999 999 999
- Hartzailearen Ifz: 999 999 999
- Ordezkararen Ifz: 999 999 999
- Abizenak Eta Izena, Sozietatearen Izena Edo Izendapena: Ordaintzeke Dauden Baloreak
- Bitartekaria: Hutsik.
- Probintzia (Kodea): Hutsik.
- Kodearen Gakoa: Dagokiona.
- Jaulkitzailearen Kodea: Dagokiona.
- Hartukizunaren Gakoa: Dagokiona.
- Izaera: Dagokiona.
- Ordainketa: Dagokiona.
- Kode Mota: Hutsik.
- Balore Kontuaren Kodea/Mailegu Eragiketaren Zenbakia: Hutsik.
- Sortzapen Ekitaldia: Hutsik.
- Hartukizun Mota: Dagokiona.
- Hartukizun Zenbatekoak / Mailegu-Emailaren Ordainsaria: Dagokiona.
- Murrizketen Zenbatekoak: Dagokiona
- Atxikipenen Eta Konturako Sarreraren Oinarria: Dagokiona.
- Atxikipen %: Dagokiona.
- Atxikipenak Eta Konturako Sarrerak: Dagokiona.
- Maileguaren Hasiera Data: Dagokiona.
- Maileguaren Epemuga: Dagokiona.
- Konpentsazioak: Dagozkionak.
- Bermeak: Dagozkionak.

Hartzaileari buruzko datuen informazioa ordaintzeke dauden etekinak edo errentak ordaintzen zaizkion ekitaldiko aitorpenen aurkeztu behar da. Hala gertatzen denean, etekinak edo errentak ordaindu diren ekitaldiko aitorpenen, “Sortzapen ekita” laukian haiek sortu diren ekitaldiko lau zifrak adierazi behar dira, nahiz eta titularrak kobratzera aurkeztu ez eta ordaindu ez.

“**Sortzapen ekita**” laukia: Aitorpenaren ekitaldian titularrak kobratzera aurkeztu direlako ordaindutako etekin edo errenten sortzapen ekitaldiko lau zifrak adierazi behar dira, etekinak edo errentak aurreko ekitaldietan sortu badira. Deskribatutakoa ez beste kasu guztietan lauki honetan ez da ezer jarri behar.

“**Bitartekoa**” laukia: lauki honetan ondoko kasu hauetan soilik jarriko da X: aitor-tutako hartzailea Espainian helbidea, egoitza edo ordezkariak duen erakundeak bada, atxikipena aplikatu beharreko errentak besteren kontura ordaintzen baditu edo etekina edo errenta sortu duten baloreen gordailuzain edo haien errenten kobrantzaren kudeatzailea bada. Aurrean aipaturikoez beste kasuetan ez da ezer jarri behar, hau da, aitor-tutako hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergaduna bada eta zerga hauen zioz eredu honetako atxikipenak edo konturako sarrerak jasan baditu.

193 ereduan erabili beharreko hartzaile gakoak eta izaera

Garrantzitsua: 193 ereduko barruko orrietako hartzaile erregistro guztietan ondoko zerrendako gakoetako bat jarri behar da, bai eta gako horren araberrako izaera identifikatzen duen digitua ere; hona gakoak eta izaera identifikatzeko digituak:

A gakoa Mota guztietako erakundearen funts propioetan partaidetza edukitzeagatik lortutako etekinak edo errentak.

Gako honi lotutako “Izaera” laukia:

- 01 Batzarretara joateagatik sariak.
- 02 Edozein eratako entitateen dibidendu eta irabazietan partaidetzak, 07 edo 08 izaera ez dagokionean.
- 03 Aktiboaren klase guztietatik datozen etekinak edo errentak, salbu eta estatutuaren edo sozietatearen organoaren erabaki batez askaturik dauden akzioen emateenak; horrezaz gainera, akzio horiek ahalmena eman behar dute parte hartzeko norberaren lanaren ordainsaria ez beste kari baten zioz, sozietate edo elkarte baten mozkin, salmenta, eragiketa, sarrera edo antzeko kontzeptuetan.
- 04 Erakundearen funts propioetan partaidetza ahalbidetzen duten baloreen edo partaidetzen gaineko erabilera nahiz gozamen eskubideak edo ahalmenak (zeinahi ere den izendapena edo izaera) eratzearen edo lagatzearen ondoriozko etekinak edo errentak.
- 05 Aurreko digituetakoak ez beste onura guztiak, erakundeek bazkide, akziodun, elkarte edo partaide izateagatik emanak.
- 06 Etekin salbuetsiak.
- 07 Talde inbertsioko erakundeek banatzen dituzten dibidenduak eta mozkinak.
- 08 Atxikipena edo konturako sarrera ez daukaten dibidenduak.
- 09 Kooperatibek bazkideei ordaindutako ekarpenen interesak.

B gakoa Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortutako etekinak edo errentak, D gakoan sartu behar ez direnak.

Gako honi lotutako “Izaera” laukia:

- 01 Obligazio, bonu, gordailu ziurtagiri eta beste titulu pribatu batzuen korrituak.
- 02 Obligazio, bonu, agiri, zor publiko eta beste titulu publiko batzuen korrituak.
- 03 Bankuetakoak ez beste mailegu batzuen korrituak.
- 04 Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauko hamalagarren xedapen iragankorrean aipatzen diren finantza eragiketetan araubide iragankorra aplikatzen zaien etekinak edo errentak.
- 05 Finantza erakunde batek bere titulartasuneko kreditu baten transmisio, lagapen edo transferentzia osoaren edo partzialaren ondorioz emandako etekinak edo errentak.
- 06 Aurreko digituetan sartzen ez diren kapital higikorren beste errenta edo etekin batzuk.
- 07 Etekin salbuetsiak.

C gakoa A, B edo D kodeetan sartzen ez diren kapital higikorren beste etekin edo errenta batzuk.

Gako honi lotutako “Izaera” laukia:

- 01 Jabetza intelektualetik eratorritako etekinak edo errentak, hartzailea autorea ez bada.
- 02 Hartzaileak egindako jarduera ekonomikoekin loturik ez dagoen jabetza industrialetik eratorritako etekinak edo errentak.
- 03 Laguntza teknikoaren prestaziotik eratorritako etekinak edo errentak, prestazio hori jarduera ekonomiko baten esparruan gauzatu ezean.
- 04 Jarduera ekonomikoak taxutzen ez dituzten ondasun higikor, negozio edo meategien errentamendu edo azpierreantamendutik eratorritako etekinak edo errentak.
- 05 Kapitalen ezarpenak sortutako biziarteko edo aldi baterako errentak, baldin eta ez badira jaso jarauntsita, lagata edo beste oinordetza tituluren baten bidez eta ez badira kapitalizazio eragiketen edo bizi zein elbarritasun ase-guruko kontratuen ondoriozkoak.
- 06 Irudia ustiatzeko eskubidearen edo hura erabiltzeko baimenaren edo eskuespenaren lagapenetik eratorritako etekinak, lagapen hori jarduera ekonomiko baten esparruan izan ezean, betiere PFEZen zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.
- 07 Jarduera ekonomikoa taxutzen ez duten hiriko ondasun higiezinen azpierreantamenduetan lortutako etekinak, baldin eta PFEZen zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.
- 08 Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo hura erabiltzeko baimena emanda lortutako errentak, nahiz eta ustiapen ekonomikoetan sortutako sarrerak izan, baldin eta Sozietateen gaineko Zergarekiko subjektu pasibo edo establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarekiko zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.
- 09 Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartuz eskuratutako errentak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, promozio edo salmentari lotuta egon zein ez, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edo establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira.

10 Beste sozietate batzuetan administrari edo aholkulari eratzikipenaren ondorioz lorturiko kontraprestazioak, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edota establezimendu iraunkorraren bidez errentak eskuratzen dituzten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira. Hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, errenta hauek 190 ereduan aitortu behar dira.

11 Etekin salbuetsiak.

12 Zerga oinarri orokorrean sartu behar diren baina gako honen aurreko digituetan sartu ezin diren kapital higikorraren beste errenta edo etekin batzuk.

13 Aurrezkiaren oinarri orokorrean sartu behar diren baina gako honen aurreko digituetan sartu ezin diren kapital higikorraren beste errenta edo etekin batzuk.

14 Kapital higikorraren beste etekinak edo gako honetako aurreko digituetan sartu ezin daitezkeen errentak, hartzailea ez bada pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zergaduna.

D) gakoa Norberaren kapitalak besteri (lotutako entitateak) lagatzen dituzten etekinak edo errentak, hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun bada.

Gako honi lotutako "Izaera" laukia:

01 Obligazio, bonu, gordailu ziurtagiri eta beste titulu pribatu batzuen korrituak.

02 Obligazio, bonu, agiri, zor publiko eta beste titulu publiko batzuen korrituak.

03 Bankuetakoak ez beste mailegu batzuen korrituak.

04 Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauko hamalagarren xedapen iragankorrean alpatzen diren finantza eragiketetan araubide iragankorra aplikatzen zaizen etekinak edo errentak.

05 Finantza erakunde batek bere titulartasuneko kreditu baten transmisio, lagapen edo transferentzia osoaren edo partzialaren ondorioz emandako etekinak edo errentak.

06 Aurreko digituetan sartzen ez diren kapital higikorraren beste errenta edo etekin batzuk.

07 Etekin salbuetsiak.

INFORMAZIOA EMATERAKOAN ERABILI BEHARREKO ARAUAK, BALDIN ETA EREDU HONEN XEDE DIREN KAPITAL HIGIKORRAREN ERRENTAK EDO ETEKINAK SORTU DITUEN ONDARE ELEMENTU, ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN TITULARTASUNA HARTZAILE BATZUENA BADA

Eredu honetako informazioa emateko ez beste ezertarako, beronen xede diren errentak edo etekinak sortu dituen ondare elementu, ondasun edo eskubidearen titulartasuna hainbat pertsonaren esku badago, aitortzaileak ondare elementuaren, ondasunaren edo eskubidearen titularkide bakoitzaren datu ekonomikoak bereiztu behar ditu. Hau ondare elementuaren, ondasunaren edo eskubidearen titularkideen partaidetza proportzioaren arabera egin behar da, aitortzaileak horren frogagiririk badauka. Frogagiri sinesgarririk ez bada, titulartasuna hainbana egotziko zaie denei, aurrean aipatutako informazio ondorioetarako.

AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Urteko bateko aitortpenaren 193 eredu, inprimakia zein ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarria, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulegoetan aurkeztuko da, edo posta arruntez zein ziurtatuz bidaliko da bulego horretara. 193 eredu, paper inprimatuz, urtarrilaren 1aren eta 25aren artean aurkeztu behar da, aurreko urteari dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak direla eta. Aldiz, ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarrian eginez gero, urtarrileko lehen 30 egun naturaletan aurkeztu behar da.



A HOJA RESUMEN

CUESTIONES GENERALES

El modelo 193 se compone de una hoja-resumen y de hojas interiores de detalle de los perceptores. La hoja-resumen deberá ser cumplimentada y presentada en todo caso, cualquiera que sea el tipo y la modalidad de presentación de las hojas interiores: en papel (modalidad impreso) o en soporte directamente legible por ordenador.

Obligados a presentar el modelo 193.

Están obligados a presentar el modelo 193 todas aquellas personas físicas, jurídicas y demás entidades, incluidas las Administraciones Públicas, que, estando obligadas a retener o a ingresar a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes) de conformidad con lo establecido en la normativa legal y reglamentaria reguladora de estos impuestos, satisfagan alguna de las rentas sujetas a retención o ingresos a cuenta que se indican seguidamente. Asimismo, se encuentran también obligadas a presentar el modelo 193 las entidades domiciliadas, residentes o representadas en España, que paguen por cuenta ajena rentas sujetas a retención que se indican seguidamente o que sean depositarias o gestionen el cobro de las rentas de valores que originen la sujeción a retención o ingresos a cuenta.

Rentas que deben incluirse en el modelo 193 (*).

- Los rendimientos del capital mobiliario correspondientes a perceptores que tengan la consideración de contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, incluidos los rendimientos exentos, exceptuados los siguientes:
 - Los obtenidos por la contraprestación, cualquiera que sea su denominación o naturaleza, derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros, que se deben declarar en el modelo 196.
 - Los obtenidos en el caso de transmisión, reembolso o amortización de activos financieros, que se deben declarar en el modelo 194.
 - Los procedentes de operaciones de capitalización y de contratos de seguro de vida o invalidez, que deben declararse en el modelo 188.
- Las rentas correspondientes a sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades, así como las rentas obtenidas mediante establecimiento permanente de contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, con las siguientes exclusiones:
 - Las obtenidas por la contraprestación, cualquiera que sea su denominación o naturaleza, derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros, que se deben declarar en el modelo 196.
 - Las obtenidas en el caso de transmisión, reembolso o amortización de activos financieros, que se deben declarar en el modelo 194.
 - Las procedentes de operaciones de capitalización y de contratos de seguro de vida o invalidez, que deben declararse en el modelo 188.
 - Las procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, que deben declararse en el modelo 180.
 - Las obtenidas como consecuencia de las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones representativas del capital o del patrimonio de instituciones de inversión colectiva, que deben declararse en el modelo 187.

Perceptores que deben relacionarse en el modelo 193.

Los perceptores a relacionar son los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a los que se deban atribuir los rendimientos de capital mobiliario, según lo dispuesto en el artículo 12.4 de la Norma Foral 3/2007, reguladora de este impuesto, así como los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes) que hayan obtenido las rentas objeto de este modelo, según lo dispuesto en la normativa reguladora de ambos impuestos.

